

ERANSKINA

"ZINEMA EUSKARAZ 2024-25" PROGRAMA

1. Deialdiaren xedea.

1.1. "Zinema euskaraz" programaren helburua gure inguruko euskarazko ikus-entzunezko produktuen kontsumo arduratsua sustatzea da; izan ere, hura baita gaur egungo gazteen artean informazio-, entretenimendu- eta kultura-iturri nagusia, baita ikasle gazteenen artean entretenimendurako sarbidea ere. Programa horren bidez, euskarazko filmak edo hizkuntza horretara bikoiztuak eskaini nahi dira, ikasgelan pedagogikoki landu daitezkeenak.

2. Programaren deskribapena eta ezaugarriak.

2.1. Hautatutako filmak areto komertzialetan edo ikastetxean eskainiko dira, eta hainbat balio sustatu beharko dituzte, hala nola elkartasuna, familia, animaliekiko eta ingurumenarekiko errespetua eta eskola-jazarpenaren gaitzespena.

2.2. Proiektzio horietara joaten diren ikasleek aukera izango dute gero, ikasgelan, ikusitako filmekin lotutako eduki pedagogiko horiek lantzeko. Horretarako, berariazko hezkuntza-materiala sortzea proposatzen da, filmaren emanaldiarekin lotuta, filma ikusi aurretik zein ondoren lantzeko.

3. Egutegia

Zinema saioak eskola-orduetan egingo dira eta, gehienez ere, 5.000 plaza esleituko dira. Euskarara bikoiztutako edo hizkuntza horretan ekoitzitako filmen kopuru nahikoa eskainiko da, ikastetxe interesdunetako ikasleentzat berariaz antolatutako saioetan. Proiektzioak 2024-25 ikasturteko eskola-aldietan egingo dira.

4. Eskaera egiteko epea eta modua.

Deialdia web orri hauetan argitaratuko da:
www.educacion.navarra.es eta www.navarra.es.

Ikastetxeek web-inprimaki baten bidez egingo dute eskaera, eta inprimaki hori aipatutako web orrietan argitaratuko da 2024ko irailean. Hezkuntza Departamentua, erakunde esleipendunarekin lankidetzan, zinema saioak esleitzeaz arduratuko da, deialdian ezartzen diren irizpideen arabera. Saioak egingo direla bermatuko da, gutxienez ikastetxe eskatzaile bakoitzeko ikasmaila batean. Ikastetxe bakoitzeko zinema saioen kopurua ikastetxeak egindako eskaeren kopuruaren arabera izango da.

5. Hautaketa-batzordea eta esleipenerako baremoa.

5.1. Hezkuntza Departamentuak hautaketa-batzorde bat izendatuko du, kide hauek izango dituenak:

Presidentea: Euskara Ataleko burua, edo hark eskuordetutako pertsona.

Batzordekideak:

Euskararen Sustapenen eta Didaktikaren Bulegoko burua, edo hark eskuordetzen duena, eta Euskara Ataleko irakasle-aholkulari bat.

5.2. Hautaketa-irizpideak eta baremoa:

- Inskripzio-ordena hartuko da kontuan.
- Ikastetxe bakoitzari esleitutako zinema saioen kopurua eskaera guztien kopuruaren arabera izango da.
- Programa honek eskaintzen dituen saioak baino eskaera gehiago jasoz gero:
 - o Ikastetxe bakoitzean gutxienez zinema saio bat egingo dela bermatuko da.
 - o Lehentasuna izango dute ikastetxe publikoek (plazen % 20 itunpeko ikastetxeentzat gordeko da).

6. Esleipena ebaztea eta jakinaraztea.

6.1. Hautaketa-batzordeak txanden behin-behineko esleipena argitaratuko du bere web orrian www.educacion.navarra.es eta www.navarra.es webgunean. Une horretatik aurrera, egutegiko 7 eguneko epea egongo da haren aurkako erreklamazioak aurkezteko edo, hala badagokio, eskatutako dokumentazioa zuzentzeko.

6.2. Erreklamazioak ebatzi ondoren, behin betiko esleipena aipatutako web orrietan argitaratuko da, eta parte hartzen duten ikastetxeei posta elektronikoz jakinaraziko zaie. Ikastetxe horiek bide beretik bi eguneko epean adierazi beharko dute onartzen duten edo uko egiten dioten.

7. Irakasleen eginkizunak.

7.1. Erakunde esleipendunarekin saioak zehaztu ondoren, eta Hezkuntza Departamentuko Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak gainbegiratuta, ikastetxeak irakasle laguntzaileak izendatu beharko ditu.

7.2. Ikastetxe parte-hartzaileek programaren balorazio idatzia egingo dute, eta ondorioak erakunde esleipendunari helaraziko dizkiote. Erakunde horrek amaierako memoria bat egingo du, eta Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuko Euskara Atalean entregatuko du 2025eko ekainaren 30a baino lehen.